# APOSTASÍA VASCA

[Artzapezpikutegiaren helbidea]
2005ko maiatzak 11

[Bataiatu zintuzten zonaldearen apezpikuaren izena] Txit Goren eta Agurgarriari:

Artzapezpikutegi honetako Fiskal Orokorrari:

Behean sinatu eta datuak ematen dituen honek, nire ahalmen eta eskubideen erabilera osoz, adinez nagusia izanda, honen bidez hurrengoa adierazteko borondate askea dut:

LEHENA.- Zuzenbide Kanonikoan idatzi hau izapidetzeko ezarritako prozedurarik aurkitu ez dudalarik, Elizbarrutiko Apezpikuari zuzentzen diodala hurrengoengatik:

Zuzenbide Kanonikoko kodearen 393 kanonak badio "Elizbarrutiko Apezpikuak elizbarrutiaren izenean ari dela azken honen gai juridikoetan"
381.1 kanonak ezartzen du "Bere pastoraltzan aritzean, Apezpikua arduratsu agertu behar dela bere esku utzitako fededun guztiekin (…), eta baita erlijioaren praktikatik aldendu diren haiekin."
369 kanonak elizbarrutia "Artzain zaintzarako Apezpikuaren, presbiterioaren laguntzarekin, esku utzi den, Jainkoaren herriaren atal" gisa definitzen du, "bere artzainari lotua eta honek Ebanjelioa eta Eukaristiaren bidez Espiritu Santua bat egina, sor beza Eliza partikularra, non benetan badago eta ari da Kristoren Eliza, bat, santua, katolikoa eta apostolikoa".
BIGARRENA.- Nire familiak hartutako erabakia izan zela ni bataiatzea, Eliza Katolikoak eta Estatuak eragindako presio ideologikoaren pean, baina nire uste moral eta erlijiosoak zeintzuk izan behar zuten suposatuz, eta beraz, uste hauen epai pertsonal aske eta koziente bat ebazteko askatasun osoa ukatuz.

Nire kontzientzia askatasunaren eskubide ukaezinaren eta nire arrazoitze kritikorako gaitasunaren erabilera eginez, urte kopuru nahikoa hausnartu dudala ni fede katolikora, eta beraz Eliza Katolikora, atxikitzearen esanahia.

Deklarazio honen bidez, eta nire epai liberal eta demokratikorako gaitasunaren erabilera eginez, bere dogmatismoa ezaugarri duen erakunde batean atxikitzean kontradikzioan nagoela askatasun osoz adierazi nahi dut.

Nire uste osoa da norberaren kontzientziari fidel izatea eskubide unibertsal bat dela, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala 18 eta 19. ataletan aitortua:

18. atala. Pertsona orok pentsamendu-kontzientzia eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barne da erlijio edo sinesmena aldatzeko askatasuna eta baita norbere erlijioa edo sinesmena bakarka nahiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, jardueraz, kultuz eta aginduak gordez azaltzeko askatasuna ere.
19. atala. Gizabanako guztiek dute iritzi eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren iritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta iritziak mugarik gabe eta nolanahiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa.
Esandakoagatik eta fede kristauari eta bereziki katolikoari erabat uko eginez, apostasian eroria aitortzen naiz Zuzenbide Kanonikoko kodearen 751 kanonak ezarri bezala, eta ondorioz

ESKATZEN DUT:

Nire esklusioa ondorio guztiekin, baita estatistikoak, fede katolikoan bataiatutako pertsonen erregistrotik, eta deklarazio honen bidez, nire borondate eta konbikzioz, eta uste moral, etiko eta erlijiosoak askatasunez aukeratzeko eskubide zilegiaren erabilera eginez adierazten dudan apostasia egintzaren errekonozimendua.

Sinatuta:

Dokumentu hau [bataiatuta izan zinen elizaren izena]ko elizaren arduradun denari helaraztea erregutzen dizut. Bertan sinatzen duenaren bataioa konstantzia dago, jaioteguna hau delarik: [zure jaiotze data]

Nire nortasun agiriaren kopia erantsi dut eta nire datu partikularrak hauek dira:

Izen Abizenak: [zure izen-abizenak]

Helbidea:

[zure helbidea]